

Zeraingo Burdinaren mendian barna

Aizkorri Aratz Parke Naturalaren barruan, Burdinaren mendian kokaturik dago Aizpitta adieraztegia. Egun hauetan, meategiko bizitzeko aukera dago asteazkenetik igandera, goizeko 11etatik 14tara eta arratsaldeko 16etatik 19tara. Bisita hauetan parte hartu nahi duenak Zeraingo turismo bulegora dei dezake 943 80 15 05.

Bisitariak garai bateko meategietako ingurune, pasaia berezi bat ezagutu ahal izango dute, Burdinaren lurretakoa. Aizpeako meategietan XI. Mendetik ustiari izan da burdina. 2007ko udaberrian, Burdinaren mendian hainbat panelekin, ibilbide ezberdinak prestatu baitituzte. Honela Ibilbide hauetan bertako ingurumen bereziko landaretza, animaliak etab. eta historian zehar burututako burdinaren ustiaketa teknikak ezagutzeko aukera dugu. Bestalde, ezin dira hiru kiskaltze labeak eta honen inguruan dauden biltegi, bolborategi, trenbide, aireko kable, kargaleku,... 2008ko martxoaz geroztik, Aizpitako Adieraztegia ere bisitatzeko moduan da. Izenak azaltzen duen eran etxe hau Zeraingo paisaiaren historia ezagutu nahi dutenentzako Aizpeako Burdinaren Mendiaren ikurra izan da. Gure historiaren hiru maila adierazi nahi dira hemen:

(1) mendi honetako ingurumenaren bilakaera, (2) Burdinaren ustiaketa, eraldaketa eta esportazioa eta, hirugarren, meatzearen ustiakuntzaren eragin ekonomiko eta soziala.

Adieraztegi honek, Zeraindarren garai bateko bizimodua azaldu nahi du. Betidanik nekazaritza eta artzaintzari lotuta egon den herri honetan, lurrari loturiko lehengaiak (egurra, ikatza, karea, burdina, beruna, harria...) ustiatzen jakin izan da. Zeraindarrek utzitako argazki, testimonio eta dokumentazioari esker sortu da Adieraztegi hau. Bestela ez zen posible izango hau dena aurrera ateratzea. 2009ko martxoan, pauso berri bat emanaz, ' Polborina ' galeria ireki da bisitariantzat.

' Polborina ' galeria

Zeraingo Aizpea eta Barbariko lurzoruak duen burdina aberastasunak, herriko historian bere eragina izan du, meatze gune garrantzitsu bilakatuz. Inguruak, beharrezko baliabide naturalak es-kaintzen zituen meatzetako aktibitate eta lan guztiak egin ahal izateko: Basoa, ura, erliebea,. Era berean, mendia eta ingurua ezagutzen zutenen, eta burdina ustiaketari loturiko lana zer zen ondo zekitenak zeuden inguruan. Guzti honez gain garrantzitsuena ordea, meatzarien lurzoruan burdina eta beruna aurkituko zituztela zen.

Burdinaren Mendian mendeetan zehar izandako ustiaketaren zergatia ulertu nahi bada ezinbestekoa da ' Polborina ' bezala ezagutzen den galeria edo barru-bide honen ezaugarriak ulertzea. Burdinaren Mendi osoa hobi mineral baten barnean sartzen da. Milioika urteetan zehar hobi mineral bat sortzeko, mineral hau gordetzeko balio duen arroka aproposa behar da.

Zerain inguruan azaltzen ziren mineraletatik burdina eta beruna izango ziren hasera batetan ustiatuko ziren bakarrak. Hasera batetan, erromatarren garaian, intuizio handiarekin lan egiten zuten, eta oso agerian, lurrazalean zeuden hobiak ustiatu zituzten. Hobiak aurkitzeko interpretazio eta asoziazioak erabiltzen zituzten, adibidez lur mota bakoitzean zein landaretza mota irteten zen aztertuz. Erdi arotik XX. mendera arte oso teknika gutxiarekin eta zentzu geologikorik gabe lan egin zuten. Sakabanatutako ustiatze guneak aurkitzen dira, bakoitzak lortzen zuen lur zatian burdina aurkitzeko itxaropenarekin irekitako zuloak, baina azterketa seriorik egin gabe. XX. mendean Ingeles eta Alemaniarrek Burdinaren mendiaren ustiaketa osorik hartu zuten, eta ezagutze gehiagorekin hasi ziren galeriak irekitzen. Mendiaren alde honetan harkaitz geruzak mendi magalaren paralelo antzean daude, eta bertan dauden galeria edo barru-bideak kareharri geruzak zeharkatuz eginda daude, geruza bat eta bestearen arteko zirriztuan egon zitekeen siderita edo burdin zainaren bila. Zain bat ustiatutakoan aurrerago jarraitzen zuten hurrengoaren bila. Mendiaren bestaldean aldiz geruzak mendi magalaren elkartuz daude, eta galeriak zuzenean mineral zain bati jarraituz eginda daude.

Mundu interesgarri bat aurki daiteke Zeraingo Burdinaren barruan. Bisitariak aukera ezin hobea dute historiaren zati bat bertan ezagutzeko eta gure arbasoen lanbide eta ohiturak gogorazteko Bertako ondare kultural historikoa bisitatzeko aukera eskaintzen du: Herri Museoa eta diaporama, Larraondoko zerrategia, Kartzela, Andre Mari Jasokundearen eliza, bolatokia, San Blas ermita, etab.